# I. Atala / Sección I

# Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
# Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

## Foru Aldundia / Diputación Foral

### Ogasun eta Finantza Saila

**Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren 5/2015 Ebazpena, otsailaren 12koa, Bizkaiko Foru Ogasunaren 2015. urterako Iruzurraren aurkako Plana funtsatzen duten irizpide orokorrak publikatzen dituena.**

Gure lurralde historikoan iruzur fiskalaren kontrako borrokaren eraginkortasuna handitzea da Bizkaiko Foru Aldundiaren programaren helburuetako bat, iruzur fiskala baita gure gizarteari kalte gehien egiten dion izurrietako bat: herritar guztiei erasaten die, bai eta herri legez dugun ongizateari eta gizarte moderno eta aurreratu legez lortu nahi dugun garapen mailari ere.

Gastu publikoa gu denok bizi garen ongizate-estatuaren funtsezko zutabeetako bat da, eta Ekonomia Itunak gastu hori antolatzeko tresnez hornitzen gaitu, politika ekonomikoan hartzen ditugun erabakiez ardura gaitezen, gure diru-sarreren maila zehaztu dezagun eta, horrenbestez, orain dugun gizarte-ereduarekin eta helburu dugunarekin bat datorren gastu publikoaren politika bat diseina dezagun.

Testuinguru horretan, kalte handia egiten dute zenbait jarrerek: hain zuzen ere, berdintasun-baldintza batzuen arabera denok ordaindu behar ditugun zergak herri altxorretik ebasteko ahaleginean jarduten dutenen iruzurrezko jarrerek. Kalte hori ez da, agian, begi hutsez hautematen, baina kalte horrek zuzenean eragiten dio gure gastu publikoaren mailari eta, horren ondorioz, baita gure garapen eta ongizate mailari ere.

Hala, bada, Bizkaiko Foru Aldundiak lehentasunezko ildo legez ezarri du Ogasun eta Finantza Sailaren lanean ahalik eta gehien handitzea iruzur fiskalari aurka egiteko duen eraginkortasuna, alegia, iruzurra hautemateko eta zergapekoen zerga-egoera erregulatzeko duena. Hartara, egia bihurtu ahalko da zama publikoei heldu ahal izateko ekarpena (bakoitzak bere ahal ekonomikoaren arabera) guztiok egin behar dugula dioen agindu juridikoa.

Horren ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiak iruzur fiskalaren kontra daraman politikan urrats bat aurrera eginez, 2009ko ekainaren 9an, Ogasun eta Finantza Saileko diputatuak 1634/2009 Foru Agindua onartu zuen, eta, haren bidez, Iruzurraren aurka Borrokatzeko Batzordea sortu, eta batzorde horren funtzionamendu-arauak ezarri zituen.

Hain zuzen ere, foru agindu horretako lehen artikuluan sortzen da Bizkaiko Foru Ogasunean Iruzurraren aurka Borrokatzeko Batzordea. Artikulu horren arabera, batzordea Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren mendeko organo tekniko espezializatu bat izango da, aholkua eta laguntza emango dizkiona Ogasuneko zuzendari nagusiari, Bizkaiko Foru Ogasunak iruzur fiskalaren aurka erabili behar duen politika diseinatzeko, prestatzeko, haren ezarpena kontrolatzeko eta politika horren emaitzen jarraipena egiteko.

2014. urtea izan da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga arautzen dituzten foru arau berriak aplikatu diren lehen urtea. Izan ere, Batzar Nagusiek 2013ko abenduaren 5ean onartu zituzten foru arau horiek. Baina, gainera, 2014. urtean zergapekoek lehen aldiz aurkeztu dituzte Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren autolikidazioak iruzurraren aurkako borrokan eraginkortasuna handitzearren arauotan egindako aldaketa garrantzitsuak kontuan hartuta. Aldaketa horiek arau hauetan jaso ziren: Ondarearen gaineko Zergari buruzko 2013ko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauan

### Departamento de Hacienda y Finanzas

**Resolución 5/2015, de 12 de febrero, de la Dirección General de Hacienda, por la que se hacen públicos los criterios generales que informan el Plan de Lucha contra el Fraude de la Hacienda Foral de Bizkaia para el año 2015.**

Uno de los objetivos programáticos de la Diputación Foral de Bizkaia es aumentar la eficacia y eficiencia de la lucha contra el fraude fiscal en nuestro Territorio Histórico, puesto que es una de las lacras sociales que más daño hacen al conjunto de la ciudadanía, a nuestro bienestar como País y al nivel de desarrollo que queremos alcanzar como sociedad moderna avanzada.

El gasto público es uno de los pilares fundamentales del Estado del Bienestar en el que vivimos y el Concierto Económico nos facilita las herramientas para ser responsables de nuestras decisiones de política económica, para determinar nuestro nivel de ingresos y, en consecuencia, para poder diseñar unas políticas de gasto público acordes con el modelo de sociedad que tenemos y hacia el que caminamos.

En este contexto, las conductas fraudulentas que tratan de sustraer del erario público los impuestos que todos debemos satisfacer en condiciones de igualdad generan un grave daño, quizás no perceptible a simple vista, pero que repercute directamente en nuestro nivel de gasto público y, consecuentemente, en nuestro nivel de desarrollo y bienestar.

Por tanto, la Diputación Foral de Bizkaia se ha marcado como una línea prioritaria de la labor de su Departamento de Hacienda y Finanzas aumentar al máximo de sus posibilidades su eficacia en la persecución del fraude fiscal, en su descubrimiento y en la regularización de la situación tributaria de los contribuyentes para que se pueda hacer realidad el mandato jurídico de contribución de todos al sostenimiento de las cargas públicas conforme a la capacidad económica de cada uno.

Así pues, como un paso más en la política de lucha contra el fraude fiscal de la Diputación Foral de Bizkaia, el diputado foral de Hacienda y Finanzas aprobó la Orden Foral 1.634/2009, de 9 de junio, por la que se crea la Comisión de Lucha contra el Fraude de la Hacienda Foral de Bizkaia y se establecen sus normas de funcionamiento.

Esa Orden Foral creó en su artículo 1, en dependencia directa de la Dirección General de Hacienda, la Comisión de Lucha contra el Fraude de la Hacienda Foral de Bizkaia, como órgano técnico especializado de asesoramiento y auxilio al Director General de Hacienda para el diseño, elaboración, control de la implantación y seguimiento de los resultados de la política de lucha contra el fraude fiscal de la Hacienda Foral de Bizkaia.

El año 2014 ha sido el primer año de aplicación de las nuevas Normas Forales reguladoras del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, el Impuesto sobre Sociedades y el Impuesto sobre la Renta de No Residentes, aprobadas por las Juntas Generales de Bizkaia el día 5 de diciembre de 2013, pero también ha sido el primer año en el que se han presentado las autoliquidaciones de los contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, el Impuesto sobre Sociedades y el Impuesto sobre el Patrimonio conforme a las importantes modificaciones normativas para luchar más eficazmente contra el fraude y la elusión fiscal incorporadas en la Norma Foral 2/2013, de 27 de febrero, del Impuesto

cve: BAO-BOB-2015a038

eta Zerga-iruzurraren aurkako borroka indartzeko neurri osagarriak nahiz zergen arloko beste aldaketa batzuk onartzen dituen 2013ko otsailaren 27ko 3/2013 Foru Arauan.

Hori dela eta, 2015eko ekitaldian oso garrantzitsua izango da arreta berezia jartzea bermatzeko zergadunek ondo betetzen dituztela zerga-arautegian ezarritako betebehar berriak, ez baita nahikoa arauak aldatzea zergapekoen jokabideak modulatzeko; horrez gainera, ezinbestekoa da arau berriak hasiera-hasieratik betetzeko eskatzea.

Beste alde batetik, 2014an Iruzur Fiskalaren aurka Borrokatzeko Batzordea sortu da EAEn, Euskal Autonomia Erkidegoko eta lurralde historikoetako erakundeak biltzeko eta elkarlanean aritzeko organo iraunkor gisa. Helburu hauek ditu organo horrek: foru ogasun bakoitzaren iruzurraren aurkako jarduketak gehiago koordinatzea, iruzurraren aurkako jarduketak kuantifikatzeko metodologia homogeneizatzeko oinarriak ezartzea eta hiru foru aldundien Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Plan Bateratua onartzea, hiru foru ogasunek iruzurraren kontrako borrokarako dituzten planen gutxieneko eremu komun gisa.

Ildo horretan, nabarmendu behar da Bizkaiko Foru Ogasunaren Iruzurraren aurkako Planean jaso direla, batetik, Euskadiko Iruzur Fiskalaren aurka Borrokatzeko Batzordean gainerako foru ogasunekin adostu diren jarduketak eta lehentasunak, eta, bestetik, Bizkaiko Foru Ogasunarentzat interes berezia duten jarduketa espezifikoak, aurreko urteetan egindako ahalegin handien bideari eusteko.

Alderdi horiek kontuan hartuta, nabarmendu ditugun lehentasun horiek Bizkaiko Foru Ogasunaren 2015. urterako Iruzurraren aurkako Plana funtsatzen duten irizpide orokorretan islatu dira, eta, 2015eko otsailaren 10ean egindako bileran, Bizkaiko Foru Ogasunean Iruzurraren aurka Borrokatzeko Batzordeak egokitzat jo zuen irizpide horiek Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiari proposatzea.

Beraz, ebazpen honen bidez, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak ontzat ematen du Iruzurraren aurka Borrokatzeko Batzordeak aurkeztu dion proposamena, eta, ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean publikatuz, betetzat jotzen da Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 114. artikuluan xedatutakoa.

Goian azaldutakoa dela bide, honako hau

EBAZTEN DUT:

### Lehenengoa

2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 114. artikuluan xedatutakoari dagokionez, publiko egiten dira Bizkaiko Foru Ogasunaren 2015. urterako Iruzurraren aurkako Plana funtsatzen duten irizpide orokorrak, eta ebazpen honen eranskin gisa jasotzen dira.

### Bigarrena

Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, herritar guztiek izan dezaten haren berri.

Bilbon, 2015eko otsailaren 12an.—Ogasuneko zuzendari nagusia, Félix Ayarza Palma

ERANSKINA

**BIZKAIKO FORU OGASUNAREN 2015. URTERAKO IRUZURRAREN AURKAKO PLANA FUNTSATZEN DUTEN IRIZPIDE OROKORRAK**

### I.

Bizkaiko Foru Ogasunaren 2015. urterako Iruzurraren aurkako Plana funtsatzen duten irizpide orokorrak jasotzen dira ondoren, zergak aplikatzeko Bizkaiko Foru Ogasunaren organoen jarduketen izaeraren arabera sailkaturik.

sobre el Patrimonio y en la Norma Foral 3/2013, de 27 de febrero, por la que se aprueban medidas adicionales para reforzar la lucha contra el fraude fiscal y otras modificaciones tributarias.

En consecuencia, durante este ejercicio 2015 va a ser muy importante prestar especial atención al adecuado cumplimiento de las nuevas obligaciones impuestas por la normativa tributaria por parte de los contribuyentes puesto que no es suficiente con modificar la regulación para modular los comportamientos de los obligados tributarios, sino exigir el cumplimiento de la nueva regulación desde un primer momento.

Por otro lado, en 2014 se ha constituido la Comisión de Lucha contra el Fraude Euskadi, como un órgano permanente de encuentro y colaboración entre las instituciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de sus Territorios Históricos para coordinar de una manera más intensa las actuaciones de lucha contra el fraude de cada una de las Haciendas Forales y establecer las bases para homogeneizar la metodología de cuantificación de las actuaciones de lucha contra el fraude, además de aprobar un Plan Conjunto de Lucha contra el Fraude de las tres Diputaciones Forales, que supone un mínimo común denominador de los Planes de Lucha contra el Fraude de cada una de las Haciendas Forales.

En este sentido, es importante destacar que el Plan de Lucha contra el Fraude de la Hacienda Foral de Bizkaia incluye tanto las actuaciones y prioridades que se han consensuado en el seno de la Comisión de Lucha contra el Fraude de Euskadi con el resto de Haciendas Forales, como las actuaciones específicas que se consideran de especial interés por parte de la Hacienda Foral de Bizkaia y que tratan de continuar los importantes esfuerzos realizados en los años precedentes.

Teniendo presentes estos extremos, las prioridades que hemos destacado han sido plasmadas en los criterios generales que informan el Plan de Lucha contra el Fraude de la Hacienda Foral de Bizkaia para el año 2015 que, en la reunión celebrada el día 10 de febrero de 2015, la Comisión de Lucha contra el Fraude de la Hacienda Foral de Bizkaia ha entendido oportuno proponer a la Dirección General de Hacienda.

La presente Resolución, por tanto, supone la aceptación por parte de esta Dirección General de la propuesta elevada a la misma por parte de la Comisión de Lucha contra el Fraude de la Hacienda Foral de Bizkaia y con su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia se da por cumplido lo dispuesto en el artículo 114 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

En virtud de todo lo expuesto,

RESUELVO:

### Primero

A los efectos de lo dispuesto en el artículo 114 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, se hacen públicos los criterios generales que informan el Plan de Lucha contra el Fraude de la Hacienda Foral de Bizkaia para el año 2015, que se incorporan como Anexo a la presente Resolución.

### Segundo

La presente Resolución se publicará en el «Boletín Oficial de Bizkaia» para general conocimiento.

En Bilbao, a 12 de febrero de 2015.—El director general de Hacienda, Félix Ayarza Palma

ANEXO

**CRITERIOS GENERALES QUE INFORMAN EL PLAN DE LUCHA CONTRA EL FRAUDE DE LA HACIENDA FORAL DE BIZKAIA PARA EL AÑO 2015**

### I.

Los criterios generales que informan el Plan de Lucha contra el Fraude de la Hacienda Foral de Bizkaia para el año 2015 son los que a continuación se relacionan, clasificados en función del carácter de las actuaciones de los diferentes órganos de aplicación de los tributos de la Hacienda Foral de Bizkaia.

cve: BAO-BOB-2015a038

Ondoren azalduko diren jarduketak gauzatzeko, beharrezko diren neurri guztiak hartuko dira, eta garrantzi berezia emango zaio, batetik, zergak aplikatzeko prozedurak garatzean informazioa tratatzeko teknologia berriak erabiltzeari, eta, bestetik, jarduketa jakin batean sartzen diren arloetako organo administratiboen arteko koordinazioari. Zehazkiago esateko, honako ezaugarri hauek betetzen dituzten bulego, finka, negozio-lokal eta gainerako establezimendu edo lekuetan egiten diren eragiketak egiaztatzeko eta ikertzeko jarduketak bultzatzen jarraituko da: zergapeko jarduerak edo ustiapenak egiten diren lekuak izatea, haietan zergapeko ondasunak egotea eta haietan zerga-egitateak egitea edo halakoen frogaren bat egotea.

Ikertzen diren jarduketetan legez kontrako jokabideak daudela susmatzeko elementuak hautematen badira, irizpide hauen bidez ahalik eta azkarren jo ahalko da auzibidera edo aurkeztu ahalko dira salaketak.

Hona, bada, Bizkaiko Foru Ogasunaren 2015. urterako Iruzurraren aurkako Plana funtsatzen duten irizpide orokorrak osatzen dituzten jarduketen sailkapena:

a) Informazioa lortzeko jarduketak: zergak aplikatzeko Bizkaiko Foru Ogasunaren organoek zerga-ondorioak dituen informazioa lortu, normalizatu eta aztertzeko egiten dituzten jarduketak dira. Haien helburua bi alderdi hobetzea izaten da: zergak aplikatzeko prozeduren xede izango diren zergapekoen hautapena eta zergapeko horiei dagokienez bideratzen diren prozeduren garapena.

b) Prebentzio-jarduketak: zergapekoek iruzurrezko jarduketa bat egin baino lehen, halakoak detektatu eta saihesteko, zergak aplikatzeko Bizkaiko Foru Ogasunaren organoek egiten dituzten kontrol-jarduketak dira, bai eta zerga-zorrak kobratuko direla bermatzen duten neurriak hartzeko egiten dituztenak ere.

c) Erregularizazio- eta kobrantza-jarduketak: Bizkaiko Foru Ogasunaren kudeaketa- eta ikuskaritza-organoek zergak aplikatzeko garatzen dituzten prozeduren xede diren zergapekoen egoera fiskala egiaztatzeko, ikertzeko eta, beharrezkoa bada, erregularizatzeko egiten dituzten jarduketak dira, bai eta Bizkaiko Foru Ogasuneko zerga-bilketako organoek zergapekoek beren zorrak ordain ditzatela lortzeko egiten dituztenak ere —norbere borondatez ordaintzeko aldian nahiz ordainarazpen-aldian—.

## II. Informazioa lortzeko jarduketak

2015ean zehar, arlo hauetan garatuko dira Bizkaiko Foru Aldundiak, zergapekoei dagokienez, zerga-ondorioak dituen informazioa lortu, normalizatu eta aztertzeko egiten dituen jarduketak:

1. Informazioa zerga-administrazio foralekin, lurralde erkideko administrazioekin eta Europar Batasuneko estatu kideetako administrazioarekin trukatzeko prozesuak sendotzea, garatzea eta areagotzea.

2014. urtean, zergen arloko informazioa trukatzeko lankidetza-hitzarmenak sinatu ziren Arabako, Gipuzkoako eta Nafarroako foru ogasunekin. Hitzarmen horietan informazioa elkarren artean trukatzeko baldintzak eta prozedurak ezarri ziren, betiere informazioa dagokien pertsonen eskubideak gordeko zirela bermatuta, eta foru ogasun bakoitzaren zergei buruzko datu-baseen arteko komunikazioa denbora errealean bideratzeko mekanismo tekniko bat ezarri zen. 2015. urtean, hitzarmen horietan jasotako jarduketa-arlo guztiak osatzeko beharrezkoak diren informatikako egokitzapen guztiak egiten amaituko da, datu-baseen arteko lotura denbora errealean bermatzeko txosten guztien garapena barne.

2015. urtean, hitzarmen-proposamen eguneratu bat landuko da, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari bidaltzeko, zerga-administrazio horrek behin betiko erantzun bat eman dezan, eta, hala, informazio-trukeen kantitatea eta kalitatea hobetzeko zereginean aurrera egiteko aukera izan dezagun, gainerako zerga-administrazioekin finkatutako baldintza eta prozeduren ildotik.

La ejecución de estas actuaciones se realizará mediante la adopción de todas las medidas necesarias, haciendo especial énfasis en el empleo, en el desarrollo de los procedimientos de aplicación de los tributos de las nuevas tecnologías de tratamiento de la información y en la coordinación entre los órganos administrativos de las diferentes áreas de actuación implicadas. En particular, se continuará impulsando la realización de las actuaciones de comprobación e investigación en las oficinas, fincas, locales de negocio y demás establecimientos o lugares en que se desarrollen actividades o explotaciones sometidas a gravamen por los obligados tributarios, existan bienes sujetos a tributación o bien se produzcan hechos imponibles o exista alguna prueba de los mismos.

Por último, la ejecución de estos criterios podrá dar lugar a la judicialización de las actuaciones o a la interposición de denuncias con la mayor rapidez posible, cuando se aprecien elementos que permitan presumir la existencia de conductas ilícitas en las actividades investigadas.

Las categorías de las actuaciones que componen los criterios generales que informan el Plan de Lucha contra el Fraude de la Hacienda Foral de Bizkaia para el año 2015 son las siguientes:

a) Actuaciones de obtención de información, entendiendo como tales aquellas actuaciones de los órganos de aplicación de los tributos de la Hacienda Foral de Bizkaia dirigidas a la obtención, normalización y análisis de la información con trascendencia tributaria, con el fin de mejorar la selección de los obligados tributarios que vayan a ser objeto de los procedimientos de aplicación de los tributos y el desarrollo de los procedimientos que se sigan sobre los mismos.

b) Actuaciones preventivas, entendiendo como tales aquellas actuaciones de control de los órganos de aplicación de los tributos de la Hacienda Foral de Bizkaia dirigidas a detectar y evitar la realización de actuaciones fraudulentas de los obligados tributarios antes de su comisión, así como a la adopción de medidas tendentes a garantizar el cobro de las deudas tributarias.

c) Actuaciones de regularización y cobro, que son aquellas actuaciones encaminadas a la comprobación, investigación y, en su caso, regularización de la situación fiscal de los obligados tributarios objeto de los procedimientos de aplicación de los tributos desarrollados por los órganos de gestión e inspección de la Hacienda Foral de Bizkaia, así como aquellas actuaciones desarrolladas por los órganos de recaudación de la Hacienda Foral de Bizkaia para obtener el pago por los obligados tributarios, tanto en período voluntario como en período ejecutivo, de sus deudas.

## II. Actuaciones de obtención de información

Las actuaciones de la Hacienda Foral de Bizkaia dirigidas a la obtención, normalización y análisis de la información con trascendencia tributaria de los obligados tributarias se desarrollarán durante el año 2015 en las siguientes áreas:

1. Consolidación, desarrollo e intensificación de los procesos de intercambio de información con las Administraciones tributarias forales, de territorio común y de otros Estados miembros de la Unión Europea.

En el año 2014, se formalizaron los convenios de colaboración para el intercambio de información con fines tributarios con las Haciendas Forales de Araba, Gipuzkoa y Navarra. En los citados convenios se establecieron las condiciones y procedimientos por los que se debe regir el intercambio recíproco de información, preservando en todo caso los derechos de las personas a que se refiere la misma, y se arbitró un mecanismo técnico de comunicación en tiempo real de las bases de datos tributarias de cada una de las Haciendas Forales. Durante el año 2015 se ultimarán las adaptaciones informáticas necesarias para completar todas y cada una de las áreas de actuación recogidas en los citados convenios, incluidos los desarrollos de todos los informes que completan la interconexión en tiempo real de las bases de datos.

En el año 2015 se trabajará en una propuesta de convenio actualizada para su remisión a la Agencia Estatal de la Administración Tributaria, con el objeto de provocar una respuesta definitiva de esta Administración tributaria que nos permita avanzar en la mejora de la cantidad y calidad de los intercambios de información, siguiendo las condiciones y procedimientos que se han fijado con el resto de Administraciones tributarias.

cve: BAO-BOB-2015a038

2. Zerga-ondorioak dituen informazioa trukatzeko prozesuak zergen arlokoak ez diren beste administrazio, organismo eta erakunde publikoetara zabaltzea. Horretarako, aurreko urteetan erakunde horiekin sinatutako hitzarmenak sendotu eta garatuko dira.

2014an, batzorde bat eratu zen Bizkaiko udalen eta Foru Ogasunaren artean, zerga-ondorioak dituen informazioaren trukeen plangintza eta jarraipena egiteko. Iaz lan-bilera asko egin ondoren, 2015. urtearen hasieran informazioa trukatzeko lankidetza-hitzarmenak sinatuko dira lurralde historikoko udal garrantzitsuenekin.

Halaber, 2014an batzorde bat eratu zen Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Ogasunaren artean, zerga-ondorioak dituen informazioaren trukeen plangintza eta jarraipena egiteko. 2015. urtean zehar, esparru-hitzarmen bat formalizatuko da, Eusko Jaurlaritzako sail batzuekin informazioa trukatzeko ildo orokorrak ezarri ahal izateko. Besteak beste, hitzarmen berezi bat formalizatuko da Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren menpe dagoen Lan Ikuskaritzarekin.

3. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 92. eta 93. artikuluetan aipatzen den informazioa emateko betebeharra betetzeko oro har eskatzen diren aitorpen informatibo berriak onartzea.

Horrez gainera, oro har eskatu ohi diren aitorpen informatiboei dagokienez, eskatutako informazioa garatu, finkatu eta zabaltzeko jarduketak egingo dira, bai eta ekitaldian sortzen diren arau-aldaketetara egokitzeko jarduketak ere.

2015. urtean, aldaketak egingo dira aitorpen informatiboetan, adibidez, Foru Ogasunak zergak aplikatzeko beharrezko duen informazio garrantzitsua osatzeko, eredu hauetan egingo diren aldaketok: 190 eredua – Lanaren eta jarduera ekonomikoen etekinen, sarien eta zenbait errenta-egozpenen gaineko atxikipenen eta kontura egindako sarreren urteko laburpen-aitorpena; 194 eredua – Higikorren kapitalaren etekinen eta besteren kapitalaren erakarketaren eta erabileraren ordezkari diren aktiboak eskualdatuz, amortizatuz, itzuliz, trukatuz edo bihurtuz lortzen diren errenten gaineko atxikipenen eta kontura egindako sarreren urteko laburpen-aitorpena; 781 eredua – Etxebizitza-kontuei buruzko informazio-aitorpena, eta 036 eredua – Jardueraren hasiera, aldaketa edo amaieraren zentsu-aitorpena.

4. Arrisku fiskal handia duten sektore ekonomikoetan jarduten duten zergapekoei buruzko zerga-ondorioak dituen informazio gehitzea eta hobetzea, organismo eta erakunde publiko zein pribatuetan dagoen informazioa lortuz. Batez ere, honako jarduera hauetakoa: jarduera profesionalak, higiezinen sektorea, bai eta, zergak aplikatzen dituzten organoen jarduketen arabera, Sozietateen gaineko Zergan eta/edo Balio Erantsiaren gaineko Zergan iruzur egiteko arriskua duten erakundeek egiten dituzten jarduerak ere.

Profesional talde jakin batzuek eta enpresa-jardueraren sektore jakin batzuek lortutako sarrerak hobeto zehazteko informazioa eskuratzeko jarduketa selektiboak egingo dira, bai eta aberastasunaren kanpoko seinale diren gastu eta inbertsioei buruzko informazioa eskuratzeko ere, betiere ez badatoz bat zerga-administrazioari aitortutako datuekin.

Zehazki, jarduera ekonomikoko sektore hauei buruzko informazioa lortzeko jarduketak egingo dira:

a) Abokatuak eta prokuradoreak, Bizkaiko Lurralde Historikoko epaitegiek eta auzitegiek izapidetu dituzten eta profesional horiek parte hartu duten prozeduren informazioa lortuz. Bereziki, konkurtsoko administratzaileei buruzko eta Bizkaian garatzen diren mota horretako prozeduretan parte hartzen duten beste profesional batzuei buruzko informazioa lortuko da.

b) Profesional mediko eta sanitarioak.

c) Eraikinak zaharberritzeko obrak, erakunde publikoei eta jabeen komunitateei zuzendutako informazio eskaeren bitartez.

2. Ampliación de los procesos de intercambio de información con trascendencia tributaria con otras Administraciones, organismos y entidades públicas distintas de las tributarias, mediante la consolidación y el desarrollo en su caso de los convenios suscritos con estas entidades en los años anteriores.

En el año 2014 se creó una comisión para la planificación y seguimiento de los intercambios de información con trascendencia tributaria entre los Ayuntamientos y la Hacienda Foral de Bizkaia. Después de múltiples reuniones de trabajo durante el pasado año, a primeros del año 2015 se formalizarán los correspondientes Convenios de Colaboración para el intercambio de información con los principales Ayuntamientos del Territorio Histórico.

Igualmente, en el año 2014 se creó una comisión para la planificación y seguimiento de los intercambios de información con trascendencia tributaria entre el Gobierno Vasco y la Hacienda Foral de Bizkaia. Durante el año 2015 se formalizará un Convenio Marco que permita establecer las líneas generales para el intercambio de información con diversos Departamentos del Gobierno Vasco. Entre otros, se formalizará un convenio específico con la Inspección de Trabajo dependiente del Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco.

3. Aprobación de nuevas declaraciones informativas exigidas con carácter general en cumplimiento de la obligación de suministro de información recogida en los artículos 92 y 93 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

Asimismo, respecto de las declaraciones informativas exigidas con carácter general ya existentes, se realizarán actuaciones de desarrollo, consolidación, ampliación de la información exigida y adaptación a las modificaciones normativas que se produzcan durante el ejercicio.

En el año 2015 se realizarán modificaciones de declaraciones informativas como las siguientes orientadas a ampliar la información de esta Hacienda Foral relevante para la aplicación de los tributos: del modelo 190 – Declaración resumen anual de retenciones e ingresos a cuentas sobre rendimientos del trabajo, de actividades económicas, premios y determinadas imputaciones de renta, del modelo 194 – Declaración resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta sobre rendimientos del capital mobiliario y rentas derivadas de la transmisión, amortización, reembolso, canje o conversión de cualquier clase de activos representativos de la captación y utilización de capitales ajenos, del modelo 781 - Declaración informativa de cuentas vivienda y del modelo 036 - Declaración Censal de comienzo, modificación o cese de la actividad.

4. Incremento y mejora de la información con trascendencia tributaria relativa a los obligados tributarios que desarrollan su actividad en sectores económicos de elevado riesgo fiscal, mediante la obtención de información obrante en organismos e instituciones, públicas o privadas, incidiendo especialmente en las actividades profesionales, el sector inmobiliario, así como en las actividades de aquellas entidades que, de acuerdo con las actuaciones realizadas por los órganos de aplicación de los tributos, presenten riesgos de fraude en el Impuesto de Sociedades y/o en el Impuesto sobre el Valor Añadido.

Continuarán las actuaciones selectivas de captación de aquella información que permita determinar con mayor precisión el nivel de ingresos obtenidos por determinados grupos de profesionales y sectores de actividad empresarial, así como sobre los gastos e inversiones que supongan signos externos de riqueza, que no se correlacionen con los rendimientos declarados ante la Administración tributaria.

En concreto, se realizarán actuaciones de obtención de información acerca de los siguientes sectores de actividad económica:

a) Abogados y procuradores, mediante la obtención de la información de procedimientos tramitados por los Juzgados y Tribunales que radican en el Territorio Histórico de Bizkaia en los que estos profesionales hayan intervenido. En particular, se obtendrá información acerca de los administradores concursales y otros profesionales intervinientes en los procedimientos de este tipo desarrollados en Bizkaia.

b) Profesionales médicos y sanitarios.

c) Obras de rehabilitación de edificaciones mediante requerimientos de información dirigidos a Instituciones públicas y comunidades de propietarios.

cve: BAO-BOB-2015a038

d) Beren langileei atxikipen zein karga gabeko dietak edo bestelako ordainsariak ordaintzen dizkieten enpresak, ordainketa horien arauzkotasuna justifika dezaten.

e) Gastu hauen kengarritasuna kontrolatzeko jarduketak: sukaldaritza, ostalaritza, bidaia eta joan-etorriei loturiko harreman publikoen ondoriozko gastuak, opariak eta gainerako erregaliak, garraio-elementuak (automobilak eta itsasontziak) erabiltzeak eragindako gastuak, pertsona juridikoek eta Sozietateen gaineko Zerga ordaindu behar duten gainerako erakundeek eta pertsona fisiko diren enpresaburu eta profesionalek egiten dituztenean, Zerga-iruzurraren aurkako borroka indartzeko neurri osagarriak nahiz zergen arloko beste aldaketa batzuk onartzen dituen 2013ko otsailaren 27ko 3/2013 Foru Arauan sartutako aldaketak kontuan hartuta.

f) Kredituko finantza-erakunde edo -establezimenduak, erakunde-establezimenduon kreditu- edo zordunketa-txartelen titular diren bezeroek urtean kopuru handiko ordainketak egiten badituzte.

g) Luxuzko etxebizitza eraiki berrien eta higiezinen errentamenduen eskuratzaileei buruzko informazioa lortzeko jarduketak: horretarako, energia elektrikoaren kontsumoari buruzko 159 ereduan lortutako informazioarekin alderatuko da.

h) Gastu esanguratsuei buruzko informazioa lortzeko jarduketak, gastu horiek egiten dituzten zergapekoen errenta-mailak zehazteko.

i) Ondasun-emateak edo zerbitzuak azken kontsumitzaileei zuzenean egiten dizkieten pertsona edo erakundeek egiten dituzten jarduerak erregistratzen dituzten sistema informatikoen kontrola.

5. Zerga-zorrak kobratuko direla bermatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren zordun diren pertsona fisiko, juridiko eta gainerako erakundeen ondare-egoera ikertzea, bai eta, beharrezkoa denean, erantzukizun-adierazpenerako prozedurak edo akzio penal zein kriminalak abiaraztea.

Jarduketa horiek egiteko, 2015. urtean plataforma berri bat ezarriko da, Foru Ogasunak zergapekoei bidalitako informazio-errekerimenduei bitarteko elektronikoen bidez erantzun ahal izateko, prozedura malguen eta errazen bidez. Plataforma horri esker, gainera, zergapekoek emandako informazioa zuzenean sartuko da zerga-administrazioaren sistemetan, ustiatzeko eta beste informazio-iturri batzuekin gurutzatzeko prest.

### III. Prebentzio-jarduketak

Maila honetan sartzen dira zergapekoek egin ditzaketen iruzurrezko jarduerak detektatu eta saihesteko kontrol-jarduketak, zergapekoek halakorik egin baino lehen gauzatzen direnak. Ildo horretan, Bizkaiko Foru Ogasunak honako jarduketa hauei emango die bereziki garrantzia 2015ean zehar:

1. Batasunaren barruko Operadoreen Erregistroan sartzeko eskaerak kontrolatzea eta erregistro horretan jasota dauden operadoreen jarraipena egitea, erregistroan sartzeko eskaerei edo erregistroan izena emanda daudenen baja-eskaerei kautelazko ezezkoa eman behar zaien ala ez ebazteko.

2. Hileko Itzulketen Erregistroan sartzeko eskaerak kontrolatzea eta erregistro horretan jasota dauden operadoreen jarraipena egitea, erregistroan sartzeko eskaerei edo erregistroan izena emanda daudenen baja-eskaerei kautelazko ezezkoa eman behar zaien ala ez ebazteko.

Eskabide bakoitzean dauden arrisku-faktoreen analisiaren arabera egiaztatuko dira sartzeko eskabideak. Horretarako, zuzeneko kontrolak egingo dira, egiaztatzeko emandako datuak benetakoak diren.

3. Egiaztatzea benetakoak direla zergadunek enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan alta, aldaketa edo baja eskatzeko aitorpenetan zergapekoek jakinarazten dituzten datuak, bereziki, zergapekoek aitortzen dituzten zerga-egoitzei buruzko datuen kasuan.

d) Empresas pagadoras de dietas u otras retribuciones exentas de retención y gravamen a sus empleados para que justifiquen la regularidad de las mismas.

e) Actuaciones de control de la deducibilidad de los gastos por relaciones públicas relativos a servicios de restauración, hostelería, viajes y desplazamientos, de los regalos y demás obsequios, y de los gastos derivados de la utilización de elementos de transporte (vehículos de turismo y embarcaciones) por las personas jurídicas y demás entidades sujetas al Impuesto sobre Sociedades y de los empresarios y profesionales personas físicas, de acuerdo con las modificaciones normativas introducidas por la Norma Foral 3/2013, de 27 de febrero, por la que se aprueban medidas adicionales para reforzar la lucha contra el fraude fiscal y otras modificaciones tributarias.

f) Entidades financieras o establecimientos financieros de crédito en relación con sus clientes titulares de tarjetas de crédito o débito con pagos anuales por importes elevados.

g) Actuaciones de obtención de información respecto de adquirentes de viviendas de lujo de nueva construcción y de arrendamientos inmobiliarios mediante contraste con la información obtenida del modelo 159 de consumos de energía eléctrica.

h) Actuaciones de obtención de información sobre gastos significativos a los efectos de determinar los niveles de renta de los obligados tributarios que los realizan.

i) Control de los sistemas informáticos donde se registran las actividades realizadas por personas o entidades que efectúan entregas de bienes o prestaciones de servicios directamente a consumidores finales.

5. Investigación de la situación patrimonial de las personas físicas, jurídicas y demás entidades que sean deudores de la Hacienda Foral de Bizkaia, con el fin de garantizar el cobro de las deudas tributarias, así como, en su caso, iniciar los oportunos procedimientos de derivación de responsabilidad o emprender acciones civiles o penales.

Para el desarrollo de estas actuaciones, en el año 2015 se implantará una nueva plataforma para la contestación de forma electrónica mediante procedimientos flexibles y sencillos de los requerimientos de información remitidos a los obligados tributarios por esta Hacienda Foral. Esta plataforma permitirá además que la información aportada por los obligados tributarios se integre de forma directa en los sistemas de la Administración tributaria, para su explotación y cruce con otras fuentes de información.

### III. Actuaciones preventivas

Dentro de esta categoría se engloban aquellas actuaciones de control dirigidas a detectar y evitar la realización de actuaciones fraudulentas de los obligados tributarios antes de su comisión. En este sentido, durante el año 2015 la Hacienda Foral de Bizkaia incidirá especialmente en el desarrollo de las siguientes actuaciones:

1. Control de las solicitudes de acceso al Registro de Operadores Intracomunitarios, y realización de labores de seguimiento de los operadores incluidos en el mismo, a los efectos de la posible denegación de solicitudes de acceso o baja cautelar de los operadores ya registrados.

2. Control de las solicitudes de acceso al Registro de Devoluciones Mensuales, y realización de labores de seguimiento de los operadores incluidos en el mismo, a los efectos de la posible denegación de solicitudes de acceso o baja cautelar de los operadores ya registrados.

Se comprobarán las solicitudes de acceso en función del análisis de los factores de riesgo existentes en cada solicitud. En este sentido, se realizarán controles presenciales para contrastar la veracidad de los datos comunicados.

3. Comprobación de la veracidad de los datos comunicados por los contribuyentes en las declaraciones de alta, modificación y baja en el censo de Empresarios, Profesionales y Retenedores, y en especial, de los domicilios fiscales declarados por los obligados tributarios.

cve: BAO-BOB-2015a038

4. Kontrolatzea ea zergapekoek aurkezten dituzten ala ez Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 92. eta 93. artikuluetan aipatzen den informazioa emateko betebeharra betetzeko oro har eskatzen zaizkien aitorpen informatiboak. Horrez gainera, betebehar hori betetzen ez dutenei indarreko legedian zehazten diren zehapenak ezarriko zaizkie, Zerga-iruzurraren aurkako borroka indartzeko neurri osagarriak nahiz zergen arloko beste aldaketa batzuk onartzen dituen 2013ko otsailaren 27ko 3/2013 Foru Arauan betebehar horiei emandako idazkera berria kontuan hartuta.

Bereziki, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuaren edukiarekin egiten den aitorpen informatiboa (140 eredua) aurkezteko betebeharra betetzen den ala ez kontrolatzeko jarduketak egingo dira.

Halaber, egiaztatuko da ea zergapekoek autolikidazio eta aitorpen informatiboak ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian edo telematikoki aurkezteko betebeharra betetzen duten ala ez, hala aurkezteko betebeharra ezarrita dagoenean. Eta hala aurkezten ez badute, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 205. artikuluan xedatutako zehapena ezarriko zaie.

5. Egiaztatzea Sozietateen gaineko Zergaren zergadunek ondo betetzen dutela bazkideei eta administratzaileei buruzko zein zergadunok beste erakunde batzuetan dituzten partaidetzei buruzko informazioa emateko betebeharra. Betebehar hori 1996ko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 129. artikulua eta 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 126. artikuluan ezartzen da.

6. Zergapekoek zerga-betebeharrak beren kabuz bete ditzaten sustatzeko ekintzak bultzatzea; bereziki, honako hauek: Administrazioa aurretik lotesteko prozedurak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan xedatuak; zergapekoei beren autolikidazioak eta aitorpenak egiteko ematen zaien laguntza. Horrez gainera, funtzionarioentzako barne trebakuntza espezifikoa eta herritarren kontzientzia fiskal kolektiboa sendotzea.

Zergapekoek zerga-betebeharrak betetzeko dituzten zeharkako kostuak murrizteak eta haien segurtasun juridikoa handitzeak nabarmen sustatzen dute zergapekoek beren zerga-betebeharrak modu espontaneoan bete ditzatela; hortaz, 2015ean zehar garrantzi berezia emango zaie jarduketa-arlo hauei:

— Teknika eta baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera eta aplikazioa sustatzea eta garatzea, bereziki autolikidazioak eta aitorpenak egiten laguntzeko.

— Herritarren kontzientzia fiskal kolektiboa sendotzea, profesionalei, enpresa txiki eta ertainei, unibertsitateei, ikastetxeei eta beste kolektibo batzuei zuzendutako komunikazio-programen bidez.

7. Behin-behineko kautelazko neurriak hartzea, zerga-zorrak kobratuko direla bermatzeko, eta, horretarako, likidazio administratiboak egiteko eskumena duten organoen eta zerga-bilketako organoen arteko lankidetza areagotzea.

8. Zerga-zorren ordainketa geroratzea edo zatikatzea eskatu duten erakunde edo erakunde-taldeak kontrolatzea, oraindik borondatezko aldian ordaintzeko epearen barruan daudenean.

9. Identifikazio fiskaleko zenbakia ezeztatzea Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebehar formalei buruzko Araudiko 69. artikuluan zehazten diren kasuetako batean dauden erakundeei. 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori.

10. Lan-prozesuak eguneratzea eta aldatzea, lan-prozesuok zergapekoaren ezaugarrien arabera ezartzeko.

4. Control del cumplimiento por los obligados tributarios de su deber de presentación de las declaraciones informativas exigidas con carácter general en cumplimiento de la obligación de suministro de información recogida en los artículos 92 y 93 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, con imposición, en su caso, de las sanciones tipificadas en la normativa vigente a los obligados tributarios incumplidores de estas obligaciones, en la nueva redacción dada a las mismas por la Norma Foral 3/2013, de 27 de febrero, por la que se aprueban medidas adicionales para reforzar la lucha contra el fraude fiscal y otras modificaciones tributarias.

En particular, se realizarán actuaciones de control del cumplimiento de la obligación de presentar el modelo 140 – Declaración informativa con el contenido del Libro Registro de Operaciones Económicas.

Se verificará asimismo el cumplimiento por los obligados tributarios de su deber de presentar las autoliquidaciones y declaraciones informativas en soporte directamente legible por ordenador o de forma telemática cuando estén obligados a dichas formas de presentación, con imposición en caso de incumplimiento de la sanción prevista en el artículo 205 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

5. Verificación del correcto cumplimiento de las obligaciones de información de los socios y administradores de los contribuyentes del Impuesto sobre Sociedades, y de las participaciones que estos contribuyentes tengan en otras entidades, establecidas en el artículo 129 de la Norma Foral 3/1996, de 26 de junio, y en el artículo 126 de la Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre.

6. Fomento de las acciones dirigidas a promover el cumplimiento voluntario por los obligados tributarios de sus obligaciones fiscales, y en particular, de los procedimientos de vinculación administrativa previa previstos en la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, de la asistencia a los obligados tributarios en la realización de autoliquidaciones y declaraciones, así como el fomento de formación interna específica de los funcionarios y el fortalecimiento de la conciencia fiscal colectiva de los ciudadanos.

Dado que tanto la reducción de los costes indirectos de los obligados tributarios en el cumplimiento de sus obligaciones fiscales como el incremento de su seguridad jurídica se configuran como elementos que fomentan significativamente el cumplimiento espontáneo de las obligaciones fiscales, durante el año 2015 se hará especial énfasis en las siguientes áreas de actuación:

— El fomento y desarrollo del empleo y aplicación de técnicas y medios electrónicos, informáticos y telemáticos, especialmente dirigida a asistencia en la realización de autoliquidaciones y declaraciones.

— Fortalecimiento de la conciencia fiscal colectiva de los ciudadanos mediante programas de comunicación dirigidos a profesionales, pequeñas y medianas empresas, universidades, colegios y otros colectivos.

7. Adopción de medidas cautelares de carácter provisional para asegurar el cobro de las deudas tributarias, intensificando la colaboración entre los órganos competentes para practicar las liquidaciones administrativas y los órganos de recaudación.

8. Control de la entidades o grupos de entidades solicitantes de aplazamientos o fraccionamientos en el pago de las deudas tributarias cuando éstas se hallen aún en periodo voluntario de pago.

9. Revocación del número de identificación fiscal de las entidades que se encuentren en alguno de los supuestos del artículo 69 del Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 205/2008, de 22 de diciembre.

10. Actualización y modificación de los procesos de trabajo con el fin de implantarlos en función del perfil del obligado tributario.

cve: BAO-BOB-2015a038

## IV. Erregularizazio- eta kobrantza-jarduketak

2015ean zehar, garrantzi berezia emango zaie ondoren azaltzen diren puntuei, bai Bizkaiko Foru Ogasunaren kudeaketa- eta ikuskaritza-organoek zergak aplikatzeko garatzen dituzten prozeduren xede diren pertsona fisiko, juridiko eta erakundeen egoera fiskala egiaztatzeko, ikertzeko eta, beharrezkoa bada, erregularizatzeko egiten diren jarduketen barruan, bai eta Bizkaiko Foru Ogasuneko zerga-bilketako organoek zergapekoek zorrak ordain ditzaten lortzeko egiten dituztenen barruan —borondatezko aldian nahiz ordainarazpen-aldian—:

1. Aldian-aldian aitortu behar diren zergen autolikidazioa eta, bereziki, Ondarearen gaineko Zergari dagokiona aurkeztu ez duten zergapekoak.

Zergapekoak aukeratzeko lan koordinatuak egingo dira arrisku fiskalaren arabera, eta, era berean, kontrol-jarduketak egingo dira, zergadun bakoitzaren profilari ondoen dagozkion langileak eta prozedurak erabilita.

2. Ondarearen gaineko Zergaren autolikidazioa aurkezten duten zergapekoak ikuskatzea, ondasunen eta eskubideen balioa ondo aitortu dutela egiaztatzeko, bai zergapekoek zuzenean dituzten ondasun eta eskubideena, bai sozietateetan dituzten partaidetzen bidez dituztenena.

3. Aldian-aldian aitortu behar diren zergen autolikidazioa eta, bereziki, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari dagokiona aurkeztu ez duten zergapekoak.

4. Zergapekoek egiten dituzten itzulketa-eskaeren kontrola areagotzea, bai Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez, bai Sozietateen gaineko Zergari dagokionez eta bai Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez.

Hain zuzen ere, zergapekoek Balio Erantsiaren gaineko Zergan egiten dituzten itzulketa-eskaeren kontrola areagotuko da, eta modu berezian kontrolatuko dira zerga horren hileko itzulketen erregistroan dauden zergadunen eskaerak; horrez gainera, hala badagokio, ikerketa-jarduketa intentsiboak egingo dira arrisku fiskalaren zantzu handienak dituzten zergapekoen kasuan.

5. Zenbait urtetan zehar Balio Erantsiaren gaineko Zergan konpentsatu beharreko kopuruak dituztela egiaztatzen duten pertsonak edo erakundeak kontrolatzea.

Hain zuzen ere, zenbait urtetan zehar zerga honetan konpentsatzeko kopuruak dituzten zergapekoak ikuskatzeko jarduketak egingo dira baldin eta aldi berean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan edo Sozietateen gaineko Zergan aitortu dituzten etekin garbiak gutxi edo negatiboak badira.

6. Zergaren konturako atxikipenak edo zergaren konturako diru-sarrerak egin behar dituzten zergapekoen gaineko kontrola areagotzea; batez ere, atxikipen eta konturako sarrerok lanaren eta kapital higiezinaren errenten gainekoak badira. Horretarako, honako hauen arteko informazioa gurutzatuko da: zergapekoek aurkeztutako aitorpen informatiboak, Ogasunean egindako sarrerak eta, azkenik, atxikipena edo konturako sarrera jasaten duten pertsona edo erakundeei emandako ziurtagiriak.

Hain zuzen ere, jarduketak egingo dira enpresek beren langileei ordaindu eta atxikipen zein karga gabeko dieta edo bestelako ordainsari gisa aitortutako kopuruen arauzkotasuna kontrolatzeko.

7. Zerga-onurak dituztela adierazten duten autolikidazioak kontrolatzea —sortu direneko ekitaldian aplikatzekoak izan zein izan ez—, bai eta aurreko aldi batzuetan egiaztatutako kenkarien edo beste zerga-pizgarri batzuen baterakuntza-baldintzak betetzeko epeak amaitzen zaizkien autolikidazioak ere kontrolatzea.

Hain zuzen ere, areagotu egingo dira ikerketako, garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jarduera aitortuak egiteagatik Sozietateen gaineko Zergan aplikatzen diren kenkariak kontrolatzeko jarduketak, bai eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan ohiko etxebizitza eskuratzeagatik aplikatzen direnak ere.

## IV. Actuaciones de regularización y cobro

Dentro de las actuaciones encaminadas a la comprobación, investigación y, en su caso, regularización de la situación tributaria de los personas físicas, jurídicas y entidades objeto de los procedimientos de aplicación de los tributos desarrollados por los órganos de gestión e inspección de la Hacienda Foral de Bizkaia, así como dentro de las actuaciones desarrolladas por los órganos de recaudación para obtener el pago por los obligados tributarios, tanto en período voluntario como en período ejecutivo, de sus deudas tributarias, durante el año 2014 se realizará una especial incidencia en los siguientes ámbitos:

1. Obligados tributarios que no hubieran presentado autoliquidación de los impuestos de declaración periódica, y en particular, del Impuesto sobre el Patrimonio.

Se realizarán tareas coordinadas de selección de los obligados tributarios en función de su riesgo fiscal y actuaciones de control de acuerdo con los medios personales y procedimentales más adecuados al perfil de cada contribuyente.

2. Comprobación de los obligados tributarios presentadores de la autoliquidación del Impuesto sobre el Patrimonio, a los efectos de verificar la correcta declaración del valor de los bienes y derechos, tanto de los ostentados de forma directa como de los poseídos a través de la participación en sociedades.

3. Obligados tributarios que no hubieran presentado autoliquidación de los impuestos que no sean de declaración periódica, y en particular, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

4. Intensificación del control de las solicitudes de devolución formuladas por los obligados tributarios tanto en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, como en el Impuesto sobre Sociedades y en el Impuesto sobre el Valor Añadido.

En particular, se intensificarán las actuaciones de control respecto de las solicitudes de devolución formuladas por los obligados tributarios en el Impuesto sobre el Valor Añadido, con especial incidencia en relación con los contribuyentes inscritos en el Registro de Devolución Mensual, y mediante, en su caso, la realización de actuaciones intensivas de investigación en relación con los obligados tributarios que presenten indicios de riesgo fiscal más elevados.

5. Control de personas o entidades que acrediten cantidades a compensar en el Impuesto sobre el Valor Añadido durante varios años.

En particular se realizarán actuaciones de comprobación de los obligados tributarios que tengan cantidades a compensar por este impuesto durante varios años y, al mismo tiempo, los rendimientos netos declarados, en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas o en el Impuesto sobre Sociedades, sean muy reducidos o negativos.

6. Intensificación del control sobre los obligados a practicar e ingresar retenciones e ingresos a cuenta, especialmente sobre las rentas del trabajo y del capital inmobiliario que satisfagan, mediante la realización de los cruces de información oportunos entre las declaraciones informativas presentadas, ingresos efectuados y certificados emitidos a las personas y entidades que soportan la retención o el ingreso a cuenta.

En particular, se realizarán actuaciones de control de la regularidad de las cantidades declaradas como dietas u otras retribuciones exentas de retención y gravamen por las empresas pagadoras de las mismas a sus empleados.

7. Control de las autoliquidaciones en las que se acrediten beneficios fiscales, sean o no objeto de aplicación en el propio ejercicio de generación o en las que venzan los plazos para el cumplimiento de los requisitos de consolidación de deducciones u otros incentivos fiscales acreditados en periodos anteriores.

En particular, se intensificarán las actuaciones de control de las deducciones por la realización de actividades de Investigación, Desarrollo e innovación tecnológica declaradas en el Impuesto sobre Sociedades y de la deducción por adquisición de vivienda habitual en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

cve: BAO-BOB-2015a038

Ikerketako, garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik Sozietateen gaineko Zergan aitortutako kenkariak egiaztatzeko jarduketak honela bideratuko dira, batez ere: zergapekoek aurkeztutako autolikidazioak, batetik, eta Enpresa-Garapenerako Euskal Agentziak (SPRI) zein Bizkaiko Enpresa eta Aurrerapen Zentroa, S.A.U. (Beaz) sozietateak zerga-ondorioetarako bidalitako kalifikaziorako txosten teknikoak, bestetik, alderatuko dira.

8. Aseguru Primen gaineko Zergaren subjektu pasiboak. Halakoetan, zera egiaztatuko da bereziki: ea zerga horri dagokionez zuzen aitortzen diren aseguru-erakundeek Bizkaian eginiko eragiketak eta, horrenbestez, ea eragiketa horiek zuzen aldatu diren Sozietateen gaineko Zergara; horrela, egoki zehaztu ahal izango da zer tributazio-portzentaje dagokien zerga horretan zerga-administrazio foralei eta lurralde erkideko Administrazioari.

9. Fabrikazioaren gaineko zerga berezietarako erregistratuta dauden hidrokarburo-fabrikak, gordailu fiskalak, biltegi fiskalak eta alkoholen eta edari eratorrien fabrikak.

Beste alde batetik, zerga hauek kontrolatu eta egiaztatzeko jarduketak egingo dira: Joko-jardueren gaineko Zerga, Kreditu Erakundeetako Gordailuen gaineko Zerga, Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko Zerga eta Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko Zerga. Zehazki, errekerimenduak egingo zaizkie Kreditu Erakundeetako Gordailuen gaineko Zergaren aitorpena aurkeztu ez duten zergapekoei.

10. Hala Sozietateen gaineko Zergan nola Balio Erantsiaren gaineko Zergan, tributazio-portentzajeak egiaztatuko zaizkie zerga-administrazio foralei eta lurralde erkideko Administrazioari tributatzen dieten zergapekoei, eta lurraldeotako bakoitzean zergapekoak egin dituen eragiketen bolumenaren arabera aztertuko dira portzentaje horiek.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren kuotak ordaintzetik salbuesteko tributazio-portzentajeak ezartzeak dakar zerga-administrazioen artean banatzea zerga horien ondoriozko sarrerak edo itzulketak. Beraz, tributu horiek ez ordaintzeko iruzurrezko jarduketak ez badira ere, portzentajeak zuzen aplikatzeak dakar kuotak egoki banatzea, eta, hala egin ezean, eragin kaltegarria du zerga-administrazioen zerga-bilketan. Hori dela eta, komenigarritzat jotzen da lurralde bakoitzean erakundeek aitortutako tributazio-portzentajeen etengabeko kontrola egitea, portzentaje horietan gertatzen diren okerrak detektatzeko.

11. Inkoherentzia nabarmenak dituzten zergapekoak; alegia, koherentziarik eza agertzen dutenak eurek adierazitako informazioaren eta hirugarren batzuek ematen dutenaren artean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 92. eta 93. artikuluetan jasotzen den informazio-betebeharra betetzean.

12. Pertsona fisiko eta juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek egiten dituzten jarduera ekonomikoen tributazioaren arauzkotasunaren kontrol integrala.

Zehazki, zergapeko hauek ikuskatzeko eta, beharrezkoa bada, ikertzeko jarduketak egingo dira:

a) Etekin negatiboak edo beren diru-sarrerekin alderatuta etekin proportzio oso txikiak dituzten jarduera ekonomikoen titular diren zergapekoak, zuzeneko zerga pertsonala edo Balio Erantsiaren gaineko Zerga direla-eta itzulketa handiak eskatu dituztenean, edo aitorpenetan itxurazko gastuak, gastu pribatuak edo dagokien jarduera ekonomikoaren garapenarekin zerikusia ez duten gastuak sartu dituztenean.

Jarduketa bereziak egingo dira jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoak diren zergadunek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorpenetan adierazitako gastuak egiaztatzeko.

Las actuaciones de comprobación de las deducciones por la realización de actividades de Investigación, Desarrollo e innovación tecnológica declaradas en el Impuesto sobre Sociedades se instrumentarán principalmente a través del contraste de las autoliquidaciones presentadas por los obligados tributarios con los informes técnicos de calificación a efectos fiscales remitidos tanto por la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial (SPRI) como por la Sociedad Bizkaiko Enpresa eta Aurrerapen Zentrua, S.A.U. (Beaz).

8. Sujetos pasivos del Impuesto sobre la Primas de Seguros, verificando, en especial, la correcta declaración en este Impuesto en Bizkaia de las operaciones realizadas en este Territorio Histórico por las entidades aseguradoras y, en consecuencia, la traslación al Impuesto sobre Sociedades de estas operaciones para la determinación de la proporción de tributación en este Impuesto a las Administraciones tributarias forales y a la Administración de territorio común.

9. Fábricas de hidrocarburos, depósitos fiscales, almacenes fiscales, y fábricas de alcohol y de bebidas derivadas registrados a los efectos de los Impuestos especiales de Fabricación.

Por otro lado, se realizarán actuaciones de control y verificación respecto de los Impuestos sobre actividades de juego, sobre los depósitos en las entidades de crédito, sobre el valor de la producción de la energía eléctrica, y sobre los gases fluorados de efecto invernadero. En particular, se realizarán requerimientos a obligados tributarios no presentadores del Impuesto sobre los depósitos en las entidades de crédito.

10. Comprobación de los porcentajes de tributación en aquellos obligados tributarios que tributen, tanto en el Impuesto sobre Sociedades como en el Impuesto sobre el Valor Añadido, a las Administraciones tributarias forales y a la Administración de territorio común en proporción al volumen de operaciones realizado por el obligado en cada uno de estos territorios.

El establecimiento de los porcentajes de tributación, a efectos de la exacción de las cuotas resultantes en el Impuesto sobre el Valor Añadido y en el Impuesto sobre Sociedades, supone el reparto de los ingresos o las devoluciones por estos impuestos entre las diversas Administraciones tributarias. Por ello, aunque en sí mismo no supongan actuaciones fraudulentas dirigidas a eludir el pago de estos tributos, la correcta aplicación de estos porcentajes supone distribuir de forma adecuada las cuotas de los mismos y lo contrario incide en la recaudación de las Administraciones tributarias. Por ello, se considera oportuno realizar un control continuado de los porcentajes de tributación en cada territorio declarados por las entidades a efectos de detectar la existencia de incorrecciones en los mismos.

11. Obligados tributarios que presenten incoherencias relevantes entre la información declarada por los mismos en sus diferentes declaraciones tributarias y/o la suministrada por terceros en cumplimiento de la obligación de suministro de información recogida en los artículos 92 y 93 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

12. Control integral de la regularidad de la tributación de las actividades económicas desarrolladas por las personas físicas y jurídicas y por las entidades sin personalidad jurídica.

En particular, se realizarán actuaciones de comprobación y, en su caso, investigación respecto de los siguientes obligados tributarios:

a) Contribuyentes titulares de actividades económicas con rendimientos negativos o proporciones muy reducidas de beneficios en función de sus ingresos, y con importantes solicitudes de devolución en su impuesto directo personal o en el Impuesto sobre el Valor Añadido o que hayan consignado en sus declaraciones gastos ficticios, privados o no relacionados con el desarrollo de su actividad económica.

Se realizarán actuaciones especiales de comprobación de los gastos consignados por los contribuyentes personas físicas que desarrollan actividades económicas en sus declaraciones del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre el Valor Añadido.

cve: BAO-BOB-2015a038

b) Kreditu-txartel eta zordunketa-txartelen bidezko kobrantza-kudeaketarako sistemari loturiko dispositiboen titularrak.

c) Faktura irregularrak edo benetako eduki ekonomikorik gabeak ematen edo jasotzen dituzten zergapekoak eta, bereziki, tributazioko araubide objektiboetan jasota dauden zergapekoak, hala Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan nola Balio Erantsiaren gaineko Zergan.

d) Enpresa handizkariak, bereziki txikizkako merkatariei produktuak banatzen dizkieten enpresak.

e) Arrisku fiskal handia duten sektore ekonomikoetan jarduten duten zergapekoak, hala nola profesional liberalak, jarduera-bolumen handia duten txikizkako negozioak, negozio enblematikoak edo krisi ekonomikoa dagoen aldietan onura berezia ateratzen duten jarduera-sektoreak.

f) Sozietateen gaineko Zergaren zergadunak, zerga-oinarria zehazteko kontabilitateko emaitza doikuntza fiskalen bidez gutxitu dutenean edo kuotan kenkariak egiaztatu dituztenean, eta, kasu bietan, zenbatekoak oso nabarmenak izan badira.

13. Justifikatu gabeko ondare-irabaziak. Zehazkiago esateko, zergapeko batzuen zerga-egoeraren arauzkotasuna egiaztatuko da; hain zuzen ere, aitortzen dituzten etekinen mailarekin bat ez datorren ahalmen ekonomikoa dutela adierazten duten ezaugarri nabarmenak ageri dituzten zergapekoena.

14. Elkarri loturiko pertsonen eta erakundeen artean eginiko eragiketak kontrolatzeko jarduketak, oinarri ekonomikorik ez dutenak detektatzeko edo merkatuko balioarekin alderatuta nabarmenki ezberdina den balio batekin egiten direnak hautemateko.

Hain zuzen ere, sozietateen administratzaileek eta lotutako beste pertsona batzuek eginiko eragiketak egiaztatzeko jarduketak egingo dira, pertsona horiek beren kargua dela-eta ordainsaririk jasotzen ez badute edo ordainsari txikia jasotzen badute, eta, era berean, egiaztatuko da lotutako sozietateekin eginiko eragiketak merkatu-balioaren arabera baloratzeko betebeharra betetzen den.

Horrez gainera, kontrol-jarduketak egingo zaizkie pertsona fisikoak diren profesional liberalei, baldin eta profesional horiek beren tributu-karga arintzea lortzeko tartean, amarruz, pertsona juridikoak jarri izanaren zantzuak badaude.

15. Jarduerarik gabeko erakundeen kontrola; bereziki, Sozietateen gaineko Zergaren autolikidaziorik aurkeztu ez eta Erakundeen Indizean baja hartu duten zergapekoen gaineko kontrola, baldin eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazioak aurkeztu badituzte edo hirugarren batzuek erakunde horiek eginiko eragiketa ekonomiko batzuen berri eman badute hirugarren batzuekin eginiko eragiketen urteko aitorpenetan (347 eredua).

16. Higiezin-negozioei dagokien tributazioaren kontrol integrala. Zehazkiago esateko, orain arte egin izan den bezala egiaztatuko dira zergapeko ez-egoiliarrek Bizkaian kokatuta dauden higiezinekin egindako eskualdaketak, atxikipenik gabeko errentamendu-errentak, kontraprestazioaren zati bat ezkutatuz egiten diren higiezin-eskualdaketak eta zergen arloan garrantzi berezia duten beste negozio juridiko batzuk.

17. Ibilgailuen eskualdaketak kontrolatzeko jarduketak, hala Estatuko ibilgailuei dagokienez nola Europar Batasuneko estatu kideetakoei dagokienez, Balio Erantsiaren gaineko Zergako, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziko eta beste zerga batzuetako iruzurra saihestearren.

Jarduketa espezifikoak egingo dira Zerga Bereziei buruzko 1992ko abenduaren 28ko 38/1992 Legeko 66. artikuluan ezarritako onura fiskalak zuzen aplikatzen diren egiaztatzeko, eta, bereziki, indarreko legeriak taxi, autotaxi edo autoturismo gisa sailkatzen dituen ibilgailu automobilei eta benetan alokatzeko bakarrik erabiltzen diren ibilgailu automobilei eginiko salbuespenak kontrolatzeko. Horrez gainera, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko 2011ko martxoaren 24ko 1/2011 Foru Arauko 58. artikuluko 21. zenbakiko salbuespena aplikatzen den jarduketen arauzkotasuna kontrolatuko da; erabilitako ibilgailuen eskualdaketarako dago aurrez ikusita salbuespen hori, eskuratzailea halako ibilgailuen salerosketan jardun ohi duen enpresaburu bat izanik ibilgailuok berriro saltzeko erosten dituenean.

b) Titulares de dispositivos adheridos al sistema de gestión de cobros a través de tarjetas de crédito o de débito o similares.

c) Obligados tributarios emisores y receptores de facturas irregulares o sin contenido económico real, y en particular, aquellos obligados tributarios que están incluidos en regímenes objetivos de tributación, tanto en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas como en el Impuesto sobre el Valor Añadido.

d) Control de las empresas mayoristas y, en particular, de las distribuidoras de productos a comerciantes minoristas.

e) Obligados tributarios que desarrollan su actividad en otros sectores económicos de elevado riesgo fiscal, tales como profesionales liberales, negocios minoristas con un elevado volumen de actividad, negocios emblemáticos o sectores de actividad especialmente favorecidos en períodos de crisis económica.

f) Contribuyentes del Impuesto sobre Sociedades que hayan minorado el resultado contable para la determinación de la base imponible mediante ajustes fiscales o que hayan acreditado deducciones en cuota, en ambas situaciones por importes muy notorios.

13. Ganancias patrimoniales no justificadas. En concreto, se verificará la regularidad de la situación tributaria de aquellos obligados tributarios que presenten signos externos relevantes que manifiestan una capacidad económica elevada que no se corresponde con los niveles de rendimientos declarados.

14. Actuaciones de control de las operaciones entre personas o entidades vinculadas, con el fin de detectar aquéllas que carezcan de sustrato económico o que se realicen a un valor notoriamente distinto del de mercado.

En particular, se realizarán actuaciones de comprobación de las operaciones realizadas por los administradores de sociedades y otras personas vinculadas, cuando no obtengan retribución alguna por el desempeño de su cargo u obtengan retribuciones muy reducidas y se comprobará el cumplimiento de la obligación de valorar a valor de mercado las operaciones realizadas con sociedades vinculadas.

Se realizarán asimismo actuaciones de control sobre los profesionales liberales personas físicas que presentan indicios de interponer artificiosamente personas jurídicas con el objetivo principal de reducir su carga tributaria.

15. Control de las entidades inactivas, en particular de aquellos obligados tributarios dados de baja en el Índice de Entidades por no presentar autoliquidación del Impuesto sobre Sociedades, y que hayan presentado autoliquidaciones por el Impuesto sobre el Valor Añadido o se haya informado por terceros de operaciones económicas realizadas por los mismos en las declaraciones anuales de operaciones con terceras personas (modelo 347).

16. Control integral de la tributación correspondiente a los negocios inmobiliarios. En particular, continuarán las actuaciones de verificación sobre las transmisiones de inmuebles situados en Bizkaia por obligados tributarios no residentes, rentas de arrendamientos no sujetos a retención, transmisiones de inmuebles con ocultación parcial de la contraprestación y otros negocios jurídicos de especial trascendencia tributaria.

17. Actuaciones de control de las transmisiones de vehículos, procedentes tanto del ámbito interno como de otros Estados de la Unión Europea, tendentes a evitar la comisión de fraude en el Impuesto sobre el Valor Añadido, en el Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte y en otros tributos.

Se realizarán actuaciones específicas dirigidas a la comprobación de la correcta aplicación de los beneficios fiscales establecidos en el artículo 66 de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales y, en particular, de las exenciones relativas a vehículos automóviles considerados como taxis, autotaxis o autoturismos por la legislación vigente, y a vehículos automóviles que se afecten efectiva y exclusivamente al ejercicio de actividades de alquiler. Igualmente, se controlará la regularidad de las operaciones en las que se aplique la exención del número 21 del artículo 58 de la Norma Foral 1/2011, de 24 de marzo, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, prevista para las transmisiones de vehículos usados cuando el adquirente sea un empresario dedicado habitualmente a la compraventa de los mismos y los adquiera para su reventa.

cve: BAO-BOB-2015a038

18. Zerga-zorren ordainketa geroratzea edo zatikatzea eskatu duten erakundeak edo erakunde-taldeak, zerga-zorrak jada ordainarazpen-aldian daudenean.

19. Zorren ordainketan erantzukizun solidarioa edo subsidiarioa hirugarren erantzule batzuei eskualdatzeko jarduketak, hala jardueraren ondorengotzaren bidez nola zerga-araubidean horrelako jarduerak gaitzeko jasotzen diren aukeretako baten bidez egiten direnak.

20. Jarraipen intentsiboa egingo zaie kobratze-fasean iruzur egiteko jarrerak agertzen dituzten Bizkaiko Foru Ogasunaren zordunei, haien ondasunen enbargoaren eta exekuzioaren bitartez. Horrez gainera, gertutik aztertuko dira: zigortzeko moduko kaudimengabeziak, aktiboak ezkutatzea, pasiboen azaleratzeak eta talde bereko enpresen artean edo erabaki-unitate beraren mende dauden enpresen artean egiten diren eragiketak eta antzekoak.

21. Hartzekodunen konkurtsoan dauden pertsonak eta erakundeak. Haien zerga-egoera erregularizatu, eta konkurtso-prozeduran zehar agertu dituzten jarrerak berrikusiko dira, bai eta prozedura horren aurrekoak ere, Bizkaiko Foru Ogasunak zerga-zorrak kobratzeko dituen interesen kontrako diren ala ez aztertzeko.

Honako eragiketa hauek berrikusiko dira: kontu-emateak, ondare-eskualdaketak, konkurtsoko administratzaileen jarduketak, eta, horrez gainera, konkurtsoaren aurretik sortutako zerga-egitateen ondoriozko zerga-betebeharrak zuzen betetzea.

Arreta berezia jarriko da Konkurtsoari buruzko 2003ko uztailaren 9ko 22/2003 Legeko 176 bis artikuluko 4. zenbakian arautako konkurtso-prozeduretan, zeinetan auto judizial berean adierazten den legezko konkurtso-egoera eta konkurtsoaren amaiera, masa aktibo nahikorik ez dagoelako, , erakunde zorduna azkenduz.

22. Foru Ogasunaren zordunak diren zergapekoek jaraunspenei eginiko uko egiteak, kobratzeko interesak kaltetu badaitezke ere, bide zibilean edo penalean beharrezkoak diren jarduketak hasteko.

(I-368)

18. Entidades o grupos de entidades solicitantes de aplazamientos o fraccionamientos en el pago de las deudas tributarias cuando éstas se hallen ya en periodo ejecutivo de cobro.

19. Actuaciones de derivación de responsabilidad solidaria o subsidiaria a terceros responsables en el pago de las deudas, bien por sucesión de actividad o por cualquiera de los supuestos habilitantes recogidos en la normativa tributaria.

20. Seguimiento intensivo de los deudores a la Hacienda Foral de Bizkaia que realicen conductas tendentes a la defraudación en la fase de cobro, mediante el embargo y la ejecución de sus bienes, investigación de insolvencias punibles, ocultación de activos, afloramiento de pasivos, operaciones entre empresas de un mismo grupo o sometidas a una misma unidad de decisión y similares.

21. Personas y entidades declaradas en concurso de acreedores, mediante regularización de su situación tributaria y revisión de las conductas manifestadas en el procedimiento concursal, o previas al mismo, que puedan perjudicar los intereses de la Hacienda Foral de Bizkaia en el cobro de las deudas tributarias.

Se revisarán las operaciones de rendición de cuentas, las transmisiones patrimoniales, las actuaciones de los administradores concursales, y el correcto cumplimiento de las obligaciones tributarias derivadas de los hechos imponibles devengados antes del concurso.

Se dedicará especial atención a aquellos procedimientos concursales regulados en el apartado 4 del artículo 176 bis de la Ley 22/2003, de 9 de julio, Concursal, en los que en el mismo auto judicial se declara la situación legal de concurso y se decreta su conclusión por inexistencia de masa activa, con extinción de la entidad deudora.

22. Control de las renuncias a herencias realizadas por obligados tributarios que sean deudores a esta Hacienda Foral, por si pudieran perjudicar los intereses de cobro de ésta y con el fin de iniciar en ese caso las actuaciones necesarias en la vía civil o penal.

(I-368)

•

**Sondikako lur-partzela bat jabari publikotik desafektatzeari buruzko informazio publikoa.**

Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren otsailaren 17ko 431/2015 Foru Aginduaren bidez, higiezin bat jabari publikotik desafektatzeko espedientea hastea erabaki da, dagoeneko ez baitago zerbitzu publiko bat emateari afektatuta. Hau da higiezina:

— 176 m$^2$-ko lursail bat, «Txorierri-Boroa korridorearen trazatu-proiektua. Tartea: Enekuri-Derio» desjabetze-espedienteko 32. finkakoa. La Campa 1 aurkintzan dago, Sondikako udal-mugartean, N-637 errepidearen jabari publikoan sartuta. Muga hauek ditu: Iparraldean eta ekialdean, finka matrizearen gainerako zatia, egun Sondikako landa-lurraren katastroko 2. poligonoko 389 partzela dena, Ángel Landa Zabalaren jabetzakoa; hegoaldean eta mendebaldean, N-637 errepideko jabari publikoa.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Ondarea arautzen duen 3/2006 Foru Arauaren 55.2.b) artikuluan aurrez ikusitakoa betetzeko, Desafektatzeko espedientea iragarki hau argitaratzen denetik aurrera 20 egunez jarriko da jendaurreko informazioan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ondarearen Zerbitzuko bulegoetan (Basurtuko Kaputxinoen bidea, 2, 5. solairua).

Adierazitako epe hori inork erreklamaziorik edo alegaziorik aurkeztu gabe igarotzen bada, desafektatzeko espedientea amaitutzat joko da, eta gorago aipatu den higiezinak honako kalifikazio juridiko hauetako bat jasoko du: Ondare ondasuna edo jabari pribatua.

Bilbon, 2015eko otsailaren 17an.—Ogasun eta Finantzen foru diputatua, José María Iruarrizaga Artaraz

(I-403)

**Información pública de desafectación del dominio público de parcela de terreno en Sondika.**

El diputado foral de Hacienda y Finanzas, mediante Orden Foral 431/2015, de 17 de febrero, ha acordado iniciar expediente de desafectación del dominio público, por haber dejado de estar afecto a la prestación de un servicio público, del siguiente inmueble:

— Terreno de 176 m$^2$ de la finca 32 del expediente expropiatorio «Proyecto trazado del Corredor del Txoriherri-Boroa. Tramo: Enekuri-Derio». Paraje La Campa 1 del término municipal de Sondika, incluido en el dominio público de la carretera N-637. Linda al norte y este: Con resto de finca matriz, hoy parcela 389 del polígono 2 del catastro de rústica de Sondika, propiedad de Ángel Landa Zabala; al sur y oeste: Con dominio público de la carretera N-637.

A los efectos previstos en el artículo 55.2 b) de la Norma Foral 3/2006, por la que se regula el Patrimonio del Territorio Histórico de Bizkaia, el expediente de desafectación se encuentra expuesto a información pública, durante el plazo de 20 días hábiles a contar desde el siguiente a la fecha de la presente publicación, en las oficinas del Servicio de Patrimonio de la Diputación Foral de Bizkaia, sitas en calle Capuchinos de Basurto, 2, 5.ª planta.

Transcurrido el expresado plazo sin que haya reclamación o alegación alguna, se dará por concluido el expediente de desafectación del dominio público, obteniendo el citado inmueble la calificación jurídica de bien patrimonial o de dominio privado.

En Bilbao, a 17 de febrero de 2015.—El diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga Artaraz

(I-403)

cve: BAO-BOB-2015a038